

FUNTSEZKO SOZIETATEAK ELKARTEAK ALIANTZAK

Gure negozioa aurrera ateratzeko, beste enpresa batzuekin aliantza estrategiko batzuk egingo ditugu.

Alde batetik, **hornitzaileekin** aliantzak egingo ditugu, materialen eskuragarritasuna bermatzeko. Gure haragia konfiantzazko hornitzaile bati erosiko diogu. Toledon kokatuta dagoen Ozturk Quebap enpresari erosiko diogu haragia. Gainera, beste elikagai guztiak bertako baserritarrei erosiko dizkiegu.

Gure **lehiakideekin** ere aliantzak egingo ditugu. Koopetentzia egingo dugu. Marinan jarriko dugu gure jatetxea, horrela bertako beste jatetxeekin koopetentzia egingo dugu, jatetxeen zona sortuz.